

**IKUSPEGI  
FEMINISTAK EKOIZPEN  
ARTISTIKOETAN ETA  
ARTEAREN TEORIETAN**

**II. EDIZIOA**

2013

Egilea

**MIGNON NIXON**

Titulua

**ARTEA, FEMINISMOA ETA GERRA**



**AZKUNA ZENTROA  
ALHÓNDIGA BILBAO**

Azken urteotan, Vietnamgo Gerrari emandako erantzun artistiko feministei buruzko liburu batean aritu naiz lanean. Ipar Amerikaren egungo gerrek piztu zuten gaiari buruzko nire interesa. Ondorengo galderaren bidez formula daiteke interes hori: Zer ekarpen egin diote arte feministak eta feminismoan oinarrituriko arteari buruzko idazkiek gerra-egoerari eta gerraren aurkako erresistentziari?<sup>1</sup>

2003an, Irak inbaditu eta bi astera, Bruno Latour frantses teorialariak hitzaldi bat eman zuen Stanford Unibertsitatean. Hitzaldiak hasiera bikaina izan zuen: «Gerrak. Hainbeste gerra. Gerrak kanpoan eta gerrak barruan. Gerra kulturalak, gerra zientifikoak eta gerrak terrorismoaren aurka. Gerrak pobreziaaren aurka eta gerrak pobreen aurka. Gerrak ezjakintasunaren aurka eta ezjakintasunaren ondorio diren gerrak. Nire galdera sinplea da: Guk, akademikook eta intelektualok ere, gerran egon beharko genuke?»<sup>2</sup> Ondoren, beste galdera bat egin zuen Latourrek, hain zuzen hitzaldiari izenburua eman ziona: «Zer gertatu zaio espiritu kritikari? Indarrrik gabe geratu da?»

Galdera hauek nahitaez erantzun beharrekoak dira gutako bakoitzak gerrarekiko duen erantzukizunarekin eta humanitateek gerra garaian betetzen duten rolaekin kezkatuta dagoen edonorentzat. Galdera horiek egin ostean, ordea, Latourrek bat-bateko norabide-aldaketa bat egin zuen eta bere «kezkarri» buruz hitz egiten hasi zen, honakoa esanez: «Niri kezkatzen nauena, ordea, zera da, ez dira [humanitateak], besterik gabe, okerreko helburua lortu nahian ibiliko?». «Sortutako giro metaforikoari eusteko —jarraitu zuen—, aditu militarrek etengabe berrikusten dituzte beren doktrina estrategikoak, kontingentzia-planak, jaurtigaien tamaina, norabidea eta teknologia, bonba adimendunak, misilak; neure buruari galdetzen diot, zergatik aurreztu beharko genituzke guk, guk bakarrik, halako berrikuspenak? Iruditzen zait mundu akademikoan ez garela hain azkar ibili gure buruak mehatxu berrien, arrisku berrien eta helburu berrien aurrean prestatzeko garaian».

Latourren «Zergatik geratu da kritika indarrrik gabe?» hitzaldia, neurri batean behintzat, deabruaren abokatu lana egitea da, baina arazo erreala bati heltzen dio, alegia, nola egokitu daitekeen kritika berak krisialdiko «giro metaforiko» deitzen dion horretara. Hamarraldi bat geroago, arazo ezaguna dugu hori feminismoan. Denbora batetik hona, ezker intelektualeko zenbait sektorek gerraren kontrako politikak jasan ezin duen luxu gisa ikusten dute kritika feminista. Hona zer idatzi duen Rosalyn Deutsche-k: «... analisi psikoanalistak eta feministak hain beharrezkoak diren garai honetan, feminismo psikoanalitikoak politikoki ezertarako balio ez duen elementu gisa tratatzen dute».<sup>3</sup>

Latourrek analogia militar bat egiten du, «aurreko gerran borrokatzea», humanitateak jasaten ari diren ondorez diagnostikatzeko. Izan ere, doktrina militarrean, behin eta berriro esan ohi da gerra, historia ez bezala, ez dela errepikatzen. Eta honakoa galdetzen dio bere buruari: «Ez litzateke izugarria gazteak hezten eta prestatzen aritzea —bai, soldadu gazteak, kadete gazteak— jada posible ez diren gerretarako... eta haiek ekipamendu kaskarrekin uztea aurrekisi ez genituen mehatxuen aurrean, jakinda ez gaudela, inondik ere, haiei aurre egiteko prestatuta?». Irudi horretaz gogoeta egitean, nire ikasleak datozkit burura. Zail egiten da haiek kadete gisa imajinatzea. Baina, zuzen ote zegoen Latour? Zaharkituta ote dago kritika? Irteerarik gabeko kale batean ote dago kritika feminista?

Latourrek «gerrako jaurtigaien tamaina, norabidea eta teknologia» etengabe berrikusten dituzten aditu militarren gaitasun handiagoa goraiatu zituenean, amerikarren gerrak, artean, hastapenetan zeuden. Orduetik hona, ohiko bihurtu da humanitateek kultura tekno-militarrean bilatzea zilegitasuna, baita kultura horren sinesgarritasuna halabarrez gainbehera doanean ere. Guregandik hurbil, pentsamendu militarista hori postmodernismoari buruzko zenbait historia errebisionistatan ere hautematen da —zeinak eztabaida horiek gerra kultural abstraktuetara mugatzen baitituzten—, baita azterlan feministek, psikoanalistek eta postestrukturalistek aurretik zalantzan jarritako maisutasun-fantasiak berpizte zabalduan ere. Eredu militarrean oinarritutako mundu akademiko baten ikuspegiak —mundu

<sup>1</sup> Testu hau berehala argitaratzeko den *Sperm Bomb: Art, Feminism, and the American War in Vietnam* [Esperma bonba: Artea, feminismoa eta amerikarren Vietnamgo gerra] izenburuko nire liburuaren materialetan eta argitaratutako hiru saiakeratan oinarritzen da: «Louise Lawler: No Drones», *October* 147 (2014ko negua); «Libro de lenguas», in *Nancy Spero: Disidanzas* (Bartzelona eta Madril: Museu d'Art Contemporani de Barcelona eta Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofía, 2008); eta «Spero's Curses» [Speroren biraoak], *October* 122 (2007ko udazkena).

<sup>2</sup> Bruno Latour, «Why Has Critique Run Out of Steam? From Matters of Fact to Matters of Concern» [Zergatik geratu da kritika indarrrik gabe? Egiteetatik kezkatzeko arrazoiak], *Critical Inquiry* 2 (2004ko negua), 225. or. Lehen aldiz hitzaldi presidentzial gisa aurkeztua Stanforden, 2003ko apirilaren 7an, Stanford Humanities Center deituan. Testu honen ondorengo erreferentzia guztiak 225. orrialdekoak dira, beste bat adierazten denean salbu.

<sup>3</sup> Rosalyn Deutsche, «Questionnaire: In what ways have artists, academics, and cultural institutions responded to the U.S.-led invasion and occupation of Iraq?» [Galdeketa: Nola erantzun diote artistek, akademikoez eta erakunde kulturalak Estatu Batuek gidaturiko Iraken inbasioari eta okupazioari?], *October* 123 (2008ko negua), 39. or.



akademiko *drone* bat— oso desberdina dirudi orain. Latourrek erabiltzen duen topiko militarraz baliaturik, hau da, aurreko gerraren kontra borrokatzea porroterako bide segurua dela, zail egiten zait hori humanitateek egin nahi dutenarekin lotzea; alegia, iragana kontuan hartzea, neurri batean behintzat, iraganak eta orainak elkarri nola eragiten dioten aztertzeke. Sarritan, esperientzia historikoa etorkizun ezezagun batera jaurlitako botila barruko mezua izan daiteke. Beraz, zergatik ez aztertu aurreko gerra? Zergatik ez aurreko zenbait gerra? Zergatik ez aztertu zer ekarpen egin dion iraganean pentsamendu feministak gerrari eta gerraren kontrako protestari?

Has nadin Virginia Woolfekin. *Hiru ginea* (1938) lanean, Woolfek iradokitzen du gerra ez dela bat-batean iristen den gertaera bat. Hemen dago jada. «Menderatzeko eta esklabizatzekeo desirak» dio Woolfek, arnasa ematen die erritu kulturaleri, hezkuntzari hasi eta janarira edo janzkerari arte, eta, beraz, gerraren prebentzioa, gerra bera bezalaxe, etxean hasten da, geuregan.<sup>4</sup>

Militarismoa beste gauza bat da. Militarismoak «barneko gerra» eta «kanpoko gerra» bereizten ditu. Lehenengoa, Gertrude Stein-ek esan bezala, jaiotzez dugun gure suntsitzeko eskubidea litzateke, eta, bigarrena, estatuek eragindako indarkeria.<sup>5</sup> Subjektuaren eta estatuaren arteko bereizketa zorrotzean oinarriturik, militarismoak gerrarekiko gure urruntasuna lantzen du, eta garrantzia kentzen die Gertrude Steinek bere haurtzarotik gogoratzen zuena bezalako galderei: «Zer dago nire barruan —nigan— gerrari buruz dena jakitea eragiten duena?»<sup>6</sup> Steinen ustez, gerra betidanik da norberaren parte, norberaren barruan dago. Gerraren misterioa da barrutik egiten digula dei.

Jakina, bai Woolf eta bai Stein gerratik bizirik ateratako pertsonak ziren. Honako hau idatzi zuen Woolfek 1942an argitaratutako *Bakeari buruzko gogoetak bonbardaketa batean zehar* lanean:

“Alemanak etxe honen gainetik igaro ziren bart, bai-eta herenegun gauean ere. Hemen dira berriro. Esperientzia bitxia da ilunpetan etzanda egotea, erlemendoaren burrundara entzunez, jakinik noiznahi ziztatu eta hil zaitzakeela. Bakeari buruzko pentsamendu lasaien segida eteten duen soinua da. Baina, era berean, soinu horrek —otoitzek eta himnoek baino askoz gehiago— bakean pentsatzera behartu beharko gintuzke.”<sup>7</sup>

Ilunpetan pentsatzea, ohean pentsatzea, inkontzientiarekin pentsatzea: Woolfek «pentsamenduak izateko alferrikako jarduerak» defendatzen du, gerrako dronearen kontrapuntu gisa.<sup>8</sup> Woolfek kontra egiten dio gerrako erretorikari, hura bere egin ordez, Latourren moduan. Luma zorrotzuta erakustaldi militaristen aurrean, eta desfile militarretan, parlamentarioetan eta akademikoetan erakutsitako handikeria maila berean jarrita, *Hiru ginea* lanean Woolfek loturak egiten ditu pribilegio maskulinoen, klasekoen eta militarismoaren artean.

Gero, abiaduraren kontua dago. Latourrek «ahalik eta azkarren» abian jartzera gonbidatzen gaitu humanitateetako akademikook.<sup>9</sup> Aldiz, Woolfen *Hiru ginea* zalantzaren eta atzerapenaren ikerketa bat da, egiazko kontrapuntu bat militarismo teknologikoaren presarekiko eta abiadurarekiko. «Hiru urte denbora luzea da gutun bat erantzun gabe edukitzeko», dio umoretsu hasierako lerroan, «eta zure gutunak are denbora gehiago darama erantzunik gabe».<sup>10</sup> Lan-mahaian pilatuta, hautsa hartzen eta erantzun baten zain dituen hainbat eta hainbat eskaera alde batera utzita, idazleak urte asko emango ditu gogoeta egiten elkarte berri baten babesle izango zirenak lausengatzeko modu xumean egindako galdera bati luze erantzun aurretik: «Zure iritzian, nola ekidin genezake gerra?». Woolfen erantzunak hizki txiki

<sup>4</sup> «Thoughts on Peace in an Air Raid» [Bakeari buruzko gogoetak bonbardaketa batean zehar] (1942), in *Thoughts on Peace in an Air Raid* (Londres: Penguin Books, 2009), 3. or. Lehen aldiz *The Death of the Moth and Other Essays* [Sitsaren heriotza eta beste saiakera batzuk] lanean argitaratu zen.

<sup>5</sup> Gertrude Stein, *Wars I Have Seen* [Ikusi ditudan gerrak] (1945; Londres: Brilliance Books, 1984). Steinen memoriei eta gerrari emandako erantzun artistikoei buruz, ikus Mignon Nixon, «War Inside/War Outside: Feminist Critiques and the Politics of Psychoanalysis» [Gerra barruan/gerra kanpoan: Kritika feministak eta psikoanalisiaren politika], *Texte zur Kunst* 17, 68. zk. (2007ko abendua).

<sup>6</sup> Stein, *Wars I Have Seen*, 9. or.

<sup>7</sup> Virginia Woolf, «Thoughts on Peace in an Air Raid», (1942), 1. or.

<sup>8</sup> *Ibid.*

<sup>9</sup> Latour, «Has Critique Run Out of Steam.» 226. or.

<sup>10</sup> Woolf, *A Room of One's Own/Three Guineas* [Gela bat norberarena/Hiru ginea], Michele Barrett arg. (Londres: Penguin, 1993), 117. or.



idatzitako berrogeita hamar bat orrialde betetzen ditu. «Egia da erantzun asko iradoki izan direla —aitortzen du—, bat bera ere ez azalpena behar ez duenik, eta azalpenek denbora eskatzen dute».<sup>11</sup>

Imajina dezakegu XXI. mendeko Woolf batek ez lukeela orain donaziorik egingo, ez mezu pertsonal urgenterik bidaliko posta elektronikoa bidez bere helbide-zerrendara hurrengo asteko gerra geldiarazteko eskatuz. Ez da erraza hura lehen ministroari aholkuak txiokatzen imajinatzea: «bonbardatu edo ez bonbardatu». Eskaera bat sinatzeko, bilera politiko batean parte hartzeko eta donazio bat egiteko aukerak emanda, idazleak hiruei egin zien uko. Eta, berandu erantzun bazuen ere, elkarte berriaren sortzaileari bidalitako eskutitz trinko eta kritikoaren amaieran ez zuen txerrik erantsi. Horren ordez, emakumeentzako unibertsitate bat berreraikitzeke funtsari lagunduko ziola hitz eman zuen. Gerra prebenitzea, arrazoitu zuen, hezkuntza-eredu berri baten baitan egongo da, eredu experimental eta ausart bat; haren curriculumaz ez da «besteak menderatzeko arteetara» zuzenduta egongo («gastu orokor gehiegi eskatzen du horrek»), baizik eta «giza erlazioen arteetara»; gainera, sistema horretako irakasleak «bizitzen eta pentsatzen dakiten jendea izango dira».<sup>12</sup> Beraz, Woolfek irudikatu zuen proiektuak antza handia dauka gaur hemen jorratuko dugunarekin.

Woolfek Espainiako Gerra Zibilaren garaian idatzi zuen *Hiru ginea*, eta itzulinguruka ibili gabe idatzi zuen zibilen sufrimenduaz, baita gerra horretako argazkietan ikusitako hildakoen gorpuz eta erortzeaz zeuden erakinez ere. Geroago, bera bihurtuko zen aietiko gerraren helburu zibil. Gure gerra denbora hauetan, gerraren esperientzia zibila urrunago geratzen zaigu. Ameriketako Estatu Batuen gaur egungo gerrak hasierako faseetan zeuden Latourrek «gerrarako doktrina estrategikoak, kontingentzia planak, jaurtigaien tamaina, norabidea eta teknologia, bomba adimendunak eta misilak» etengabe berrikusten dituzten aditu militarren gaitasun handiagoa goraiatu zuenean. Gauzek beste itxura bat dute gaur, egia esan, eta, jakina, Latourren erretorikaren puntu itsua erasotzailearekin identifikatzearen implikazio fisiko eta etikoetan datza.

Estatu Batuentzat, eta orobat, Frantziarentzat, aurreko gerra, jeneralak ahazteko irrikaz zeuden hura, hain zuzen, Vietnamgo gerra zen. Ironia sobera dago honetan guztian. Amerikarren Vietnamgo gerra frantsesek lurralde hartan hasitako gerra kolonialaren berrestreinaldia izan zen. Metafora horren iruzurra agerian utzi zuen jeneral zaharra —bi armadak handik desagertzea lortu baitzuen—, Giap jenerala, 2013an hil zen. *New York Times* egunkariaren editorial batean Nick Tourse Vietnamgo gerraren historialariak adierazi zuen Ipar Amerikako gobernuari eta indar armatuei kosta egiten zitzaieela oraindik zibilen sufrimendua aitortzea, baita berrikiago eragindakoa ere, ustezko terroristei droneen bidez egindako bonbardaketek bitartez, nahiz eta eraso horietan «pertsonek errugabeak hil diren ezagutzen ez diren kopuruetan».<sup>13</sup> Baliteke gaur egungo gure gerrak gutxiago izatea, baina zibilak mehatxatzen dituzten droneen bidezko erasoek bere horretan dira. Beraz, zentra gaitzeen zibilen bonbardaketetan eta azter dezagun nola lagun dezaketen feminismoak eta feminismoan oinarrituriko arteak eredu iraunkor hori ulertzen. Horretarako, Nancy Spero-ren obra aztertu nahiko nuke; bereziki haren *War Series* [Gerrari buruzko seriea] (1966-1970).

Nancy Spero, bere senarra Leon Golub margolaria eta hiru seme-alaba txikiak Estatu Batuetara itzuli ziren 1964an, Parisen egonaldi luze bat egin ondoren, eta New Yorken ezarri ziren. Ikusirik amerikarren Vietnamgo parte-hartze militarra gero eta handiagoa zela, bi artistek gorakada hari erantzuteko obligazioa hartu zuten beren gain. Sperok kolpetik utzi zuen margolaritza. «Berehala hasi nintzen paperean lanean» gogoratu zuen, «haserrez beteriko obrak sortzen, eskatologikoak askotan, gerra zentzugabe eta zantar haren aurkako manifestuak».<sup>14</sup> Paperezko orri hauskorrak, eta, sarritan zimurtuak, gouachez eta tintaz hezetu eta igurtzita, indarkeria basati eta apokaliptikoko iruditeria sortu zuen... baina baita fintasun handikoa ere. 1966 eta 1970 artean modu intentsuan ekoizitako *Gerrari*

<sup>11</sup> Ibid., 117. or.

<sup>12</sup> Ibid., 155. or.

<sup>13</sup> Nick Turse, «For America, Life Was Cheap in Vietnam» [Estatu Batuentzat bizia merkea zen Vietnamen], *New York Times*, urriak 9, 2013.

<sup>14</sup> Sperioren buruzko aipamena in Amei Wallach, «Hysterical Men, Castrated Women: Nancy Spero's Exquisite Corpse» [Gizon hysterikoak, emakume zikiratuak: Nancy Sperioren gorpuz guztiz fina], in *Nancy Spero: Selected Works from the Codex Artaud 1971-72* (Dartmouth, Mass.: University Art Gallery, University of Massachusetts, 2001), 11. or. Paperean lan egiteari buruzko adierazpena hemen agertzen da: Nancy Spero, «Creation and Pro-creation» [Kreazioa eta pro-kreazioa], in «Forum: On Motherhood, Art, and Apple Pie» [Foroa: Amatasunari, arteari eta sagar-tartari buruz], *M/E/A/N/I/N/G* 12 (1992). Berriro inprimatua in Jon Bird, Joanna Isaak, Sylvère Lotringer, *Nancy Spero* (Londres: Phaidon, 1996), 118-119. or.



*buruzko seriea*, berez, 2007an amaitu zuen, bere *Maypole: Take No Prisoners* [Maiatzeko makila: Ez hartu presorik] instalazioa Estatu Batuetako pabilioian erakutsi zenean, Veneziako Bienalean, Irakeko eta Afganistango amerikarren okupazioa une gorenean zela. Spero 2009an hil zen, 83 urte zituela.

Estatu Batuetara itzuli zenean, 1964an, «gerraren gaiari nola heldu pentsatzen» hasi zen, eta bonban kontzentratzea erabaki zuen «sexuaren eta boterearen arteko lotura erakusteko».<sup>15</sup> Landu zuen motiboetako bat *Sperm Bomb* [Esperma bonba] izan zen. Haietako batean, perretxiko atomikoaren formako hodei urdin batek betetzen du orrialde osoa. Aho ireki batzuek biraoak jaurtitzen dituzte, haiekin lurrean barreatutako hari formako gorputzen gainean erortzen den hitz gordinezko euri bat osatuz. Hitz zantar horiek —«*merde*», «*fuck you*»— bi hizkuntzatan idatzita daude. Batak, «*merde*», Vietnamgo aurreko botere kolonialaren hizkuntzari egiten dio erreferentzia, baina baita Sperok frantses hizkuntzarekin zuen intimitateari ere; hark erantzukizun bikoitza zuela esan baitaiteke, frantsesak erretiratu ostean, amerikarrek berriz abiarazi baitzuten gerra Vietnamen.

Speroren hitz gordinek Vietnamen historia koloniala gogorarazten dute, ondare frankofonoa barne, amerikarren gerraren palimpsesto bat bailitza. Gerra haren indarkeria, Sperok iradokitakoaren arabera, histerikoa da. Speroren frantsesezko iraneak era askotara gogorarazten dute histeria: Charcot-ek Parisko Salpêtrière ospitalean tratatzen zituen emakume histerikoak; Antonin Artaud-en histeria, Sperok beste obra batzuetan irudikatu zuena, eta soldaduen histeria, estreinako aldiz Lehen Mundu Gerran diagnostikatu zena. Gizonezkoen histeria, XX. mendekoa, batez ere gerraren ondorio bat izan zen eta Lehen Mundu Gerrako bombardaketek eragindako kommozioaren biktimekin lotzen da batik bat; gerrako histeriko haien sintoma deigarriena mututasuna zen: gerrak tratatutako mihiak. Soldaduentzat, adierazi du Juliet Mitchell-ek, gerran parte hartzeak eskatzen duen indarkeriarekiko erreakzio bat da histeria. Beste gizaki bat hiltzearen tabu soziala urratzera behartuta, soldaduari erailketaren eta odol-egarriaren fantasia primarioak berriro bizi ditzan eta haien arabera joka dezan eskatzen zaio.<sup>16</sup> Kasu batzuetan, ordea, jokaera hori erasotzailearen kontra itzuliko da, norberaren mihia moztetako. Gerraren logika histerikoa erreproduzitzean, non soldaduak beren suntsipen fantasiak ekintza bihurtzera baina haiei buruz ez hitz egitera bultzatzen dituzten, gerrako gizonezko histerikoak besteak hiltzearen trauma bere burua isilduz dramatizatzen du: alegia, argudiatzen du Mitchellek, emakume bihurtuz.

*Gerrari buruzko serie* osoan, Sperok gerraren indarkeria histerikoa dramatizatzen du —besteak hiltzeko gogoia bultzatzea, sexua eta indarkeria batzea—, baina baita erresistentzia politikoan proiektatzen den histeria ere, biktimen protestak eta ahots kritikoak baztertu egiten baitira, alferrikako amorrutat hartzen baitira. Sperok iradokitakoaren arabera, gerra histerikoa da, nahiago baitu ekintzara jo, hitzetara baino. Gerraren kulturaren, efektu histerikoak ugaltu egiten dira, izan ere, bulkadetan oinarritutako ekintza gailentzen zaio antzepeari. Eta, era berean, gerrako histeria hori biktimen gainean, soldaduen gainean proiektatzen da —estrategia belikoak haien fantasiak ustiatzen ditu eta hitza kentzen die, jardutera behartuz— baita ahots kritikoen gainean, artisten eta amen gainean ere. Gerra, Sperok iradokitzen duenaren ildotik, historiaren kultura da, beste ezer baino gehiago.

Speroren *Gerrari buruzko seriean* bonba gehienek ez dute bururik. Haietako batean, (arrazoitzeko) buru baten ordez hodei ilun bat ageri da, buru-siluetaz josita. Menadeenak dirudite buruek, eta garrasi zoroan ari dira, mihia kanpoan dutela, jaurtigai baten punta pozoitua bailitza. *Bonba* horrek burua galdu du, gerraz mozkortuta dago, amorrut erotuta, arrazoitzeko inolako ahalmenik gabe. Vietnamgo gerra zela uste zenaren zati erreprimitua da. Izan ere, jendeari saldu zitzaionaren arabera, Vietnamgo gerra, defentsa helburu izanik, teknologia aurreratuaren aplikazio kalkulatu izan zen; argudio zinez neurrigabea gero eta ankerkeria sadikoago eta orokortuago haientzat. Gerraren pasioak ukatzea, iradoki zuen Sperok, gerraren korrante inkontzienteen aurkako babesgarria da. Arteak —dio behin eta berriro— funtsezko rola betetzen du, iragan kulturala ekartzen baitigu gogora, ohartarazteko gerra eromenari lotuta dagoela; ez bakarrik gerra hau, baizik

<sup>15</sup> Katy Kline eta Helaine Posner, «A Conversation with Leon Golub and Nancy Spero» [Elkarrizketa bat Leon Golub eta Nancy Sperorekin], in Leon Golub and Nancy Spero: *War and Memory* [Leon Golub eta Nancy Spero: Gerra eta memoria], Kline and Posner arg. (Paris eta Cambridge: The American Center, Paris eta MIT List Visual Arts Center, 1994), 39. or.

<sup>16</sup> Juliet Mitchell, *Mad Men and Medusas: Reclaiming Hysteria and the Effect of Sibling Relationships on the Human Condition* [Eroak eta medusak: Histeriaren eta sendeen arteko erlazioen efektuaren aldarrikapena giza izaeran] (Londres: Allen Lane, 2000).



gerra bera. Speroren obrak iradokitzen du diskurtso militarista garaikidearen hiper-arrazionaltasuna —droneei eta eraso erabat zehatzei buruzko bere lexikoarekin, eta teknologia fetitxe bihurtzeko joerarekin— beste zerbaiten estalkia dela.

«Nire amorruek leher egin zuen *Gerrari buruzko seriearekin*. . . ama bezala pentsatzen», gogoratu zuen Sperok. «Uholdeka egin zuen eztanda».<sup>17</sup> *Gerrari buruzko serieak* Vietnamgo gerraren aurka protestatzen zuen, baina baita haren kontra altxatutako ahotsak —emakumeenak, bereziki— politikoki baztertearen aurka ere. Sperok geroago adierazi zuenez, «emakume artista» eta ama gisa baztertua izatean sentitu zuen amorruek lehertu zitzaion eta, haren bitartez, gerraren kritika feminista artikulatu zuen. Hala ere, Sperok kritika horretarako landu zituen irudiak nekez egokitzen zaizkio artista batek ama bezala pentsatuta sor dezakeenari buruzko itzaropen konbentzionalei. Sperok, artista gisa —eta ama moduan pentsatuta— gerraren dimensio fantasmaticoak irudikatu zituen, erasotzeko modu kalkulatuak eta kontrolatuak inguratzen dituen ume-maniak jorratzeko.

*Gerrari buruzko serieak* iraganeko eta etorkizuneko suntsipenaren katalogo zorabiagarri bat biltzen du: bomba su-eragilea, bomba atomikoa, napalm-bomba, barreiatze-bomba eta gerrako helikopteroa, baina baita bomba kimikoa, atentatu suizida eta dronea ere. Speroren arabera, bonbak, gerrako aurrerapen teknologikoak baino areago, errepikapenak dira. Gure gerra denboran, airetiko suntsipena eta bortxaketaren eta torturaren indarkeria sexualizatua modu txundigarrian gainjartzen eta bateratzen dira. Sperok iradokitzen du *Gerrari buruzko seriean*, airetiko gerra, eta urrutiko kontrolez gidatzen dena ere, fantasia sadikoekin eta, askotan, sexualizatuekin, lotuta daudela ulertzen ez dugun artean, ez garela hasiko gerraren errealitateari aurre egiten.

Gaur egun, militarizazioari kontra egiteko —iradokitzen du Speroren *Gerrari buruzko serieak*— beharrezkoa dugu geure barruko suntsipen-joera inkontzienteak identifikatzea eta ezagutzea, horiek baitira gerrak eragiten dituztenak. Sperok, bere artista-belaunaldiko beste kide batzuek bezala, bete-betean sartu zituen subjektibotasunaren eta indarkeriaren gaiak gerraren eta gerrarekiko oposizioaren eremuan. Haren *Gerrari buruzko serieak*, bere giza bonben fantasmagoria eta guzti, airetiko gerraren suntsigarritasun sexuala dramatizatzen du. Obra horietan, Juliet Mitchellek teoria psikoanalista feministaren esparruan geroago formulatuko zuen galdera bat plazaratuko du Sperok: «Nola azal genezake gerraren sexualitate neurriagabea», nola «gerraren indarkeriak 'automatikoki' indarkeria sexuala izaten duela lagun?»<sup>18</sup> Speroren obrak galdera hori egiteko bidea ematen digu, eta ez bakarrik identifika daitezkeen eragile indibidualen ekintzei buruz —gerrako bortxaketak, adibidez—, baita barreiatze-bonbei, atentatu suizidei eta droneei buruz ere.

<sup>17</sup> Artistaren adierazpena, argitaratu gabea, datarik gabe. Jon Bird irakaslearen artxiboak, Londres.

<sup>18</sup> Juliet Mitchell, *Mad Men and Medusas*, 129. or.

